

Bideo eta entzumenen erabilera ikasle gorrak dauzkaten ikasgeletan

Gaur egun ikasle gorrak hizkuntzak ikasteko gai dira haur-gorrieria goiz detektatzeko programei, laguntza goiztiarreko tratamenduei eta teknologia berriei esker.

Hala ere, haur gorren familiak eta haiekin lan egiten duten profesionalak kezkatuta agertzen dira **ikasle hauek grabatutako ahozko mezuen aurrean dituzten zailtasunekin**, makina bat dela medio entzun behar dutenean ondorengo egoeretan: entzumenak, listening, CD bateko abestiak edo bideoak telebistan edo ordenagailuan ikustean.



Horrelako egoeretan **hainbat faktorek izan dezakete eragina**; batetik ikaslearen **entzumen-egoera** (galera maila, galeraren diagnosiaren egoera, zer motako entzumen-protesia erabiltzen duen, protesiei ateratzen dien etekina, ahozko mintzairaren garapenaren maila, eta abar), bestetik **kanpoko ezaugarriak** (ikasgelaren akustika, grabazioaren kalitatea, inguruan zarata egotea hala ez, FM sistema erabiltzea, soinua ateratzen den iturritik ikaslea kokatua dagoen tokiraino dagoen distantzia, eta abar), baina, beti ere, ikasle gor gehienek

—den-denek hobe esanda— ulertzeko zailtasunak izaten dituzte horrelako ariketetan.

Zailtasun horiek ahal den heinean ekiditeko Euskal Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak gomendio batzuk argitaratu zituen 2013. urtean “Ikasle gorrek hizkuntzen curriculumean txertatzea” izenburupean.

Gure aldetik, gure haur eta gazteek jasotzen duten arreta hobetzeko eta irakasleei haien lan zailean apur bat laguntzeko xedearekin gure ustez eraginkorrak diren aholku eta neurri batzuk laburbiltzen ditugu ondoren:

Entzumenak edo Listening-ak egiteko orduan:

- Mota horretako ariketak gela berezi batean egitea.
- Denbora-tarte motzak hartuz etenak egin, ez jarri entzumen guztia jarraian.
- Entzumenak birritan baino gehiagotan egin.
- Transkribatu entzumena pertsona batek irakurri ahal izateko. Ikasle gorrek horrela ezpainak irakurri ahal izango ditu eta grabaketek sortzen duten distortsioa ekiditen da.
- Hurreratu FMaren mikrofonoa entzumena egiteko erabiltzen duzun gailura (irradi-kasetea, telebista, ordenagailua) edo konekta ezazu zuzenean FMa gailu horretara audio-sarrera kable baten bidez.
- Eman normalean baino denbora apur gehiago ikasleari galderei erantzuteko.
- Kontuan izan bolumena igotzeak ez duela esan nahi ikasle gorrek hobeto ulertuko duenik, ez du inoiz grabaketaren % 100 ulertuko.

Bideoak erabiltzeko orduan:

- Ikasle gorrek entzumenetan dauzkaten zailtasun berberak bideoak erabiltzerakoan aurkituko dituzte.
- Ondo irakurtzen dakiten ikasle gorren kasuan, azpituak dauzkaten bideoak erabiltzea aholkatzen dizuegu.
 - Ezin baduzue azpituak bideorik eskuratu edo ikasleak ez badu oraindik ondo irakurtzen garrantzitsua da irakasleak kontuan hartzea ikasle gorrek informazioaren parte bat galduko duela.

Abestiak:

- Ikasleak oso gazteak direnean irakasleak familiei abestien letrak idatziz ematea komeni da.
- Ikasleak handiagoak direnean letrak idatziz ikasleari berari emango zaizkio .